

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure elkarte, HAEK, aurrera eramateko, beharrezkoak ditugu hainbat baliabide. Funtsezko elementu hauek gure enpresaren balio proposamena garatzea, bezeroengana iristea eta haiekin harremanak izatea ahalbidetzen dute.

Funtsezko elementu hauek baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak dira.

Baliabide fisikoak

Gure proiektuak funtziona dezan, fisikoak diren baliabideak behar ditugu. Kasu honetan, gure elkartearen jarduera aurrera eramateko ezinbestekoak dira honako baliabide fisiko hauek:

- Lokala: Kontu administratiboak egiteko erabiliko dugu, bulegoa hor eukiko baitugu. Halaber, kirol jarduerak egiteko leku egokia izango da.
Lokalak 110 metro karratu izango ditu, eta solairu batekoa izango da. 3 gela izango ditu, bat kirol jardueretarako erabiliko da, beste bat materiala gordetzeko eta bestea gure ofizina izango da. Komun bat dauka. Lokala zentrotik hurbil egongo da.
- Ordenagailua: Komunikatzeko eta finantzekin erlazionatutako kalkuluak eta erregistroak egiteko ezinbestekoa den tresna da. Webgunearen eta sare sozialen kudeaketa egiteko erabiliko dugu.
- Telefonoa: Komunikatzeko tresna nagusia izango da. Agureak zerbait esan nahi badigute, telefonoz egingo dute. Horrez gain, gurekin kontaktatzeko telefonoz askoz errazago izango da, agian emailaz gehiago kostatzen zaigu erantzutea.
- Altzariak: Gure ofizinarako altzariak behar ditugu, mahai bat, bi armairu (bat ofizinarako eta bestea materiala gordetzeko) eta aulkiak.
- Kirola edo ekintzak egiteko materiala: Gure kirol ekintzak egiteko behar dugun materiala honako hau da: esterillak, pilateseko baloiak eta baloi txikiak.

Baliabide intelektualak

Gure elkartearen jarduera aurrera eramateko beharrezkoak dira baliabide intelektualak eta giza baliabideak. Taldekide bakoitzak abilezi eta gaitasun ezberdinak dauzka, eta guztiak beharrezkoak ditugu ahalik eta zerbitzu hoberena eskaintzeko.

Aialak eskaini ahal duena da bere sormena, eta publizitatea egiteko sormen hori erabilliko dugu, uste dugulako publizitatea gakoa dela gure ekintzaren berri emateko.

Unax aditua da informatikan, eta horrek asko lagunduko digu. Berak bere ezagutzak partekatuko ditu, eta gure lana asko erraztuko du informatikan aditua den norbait eukitzea, beharrezkoak ditugun programa informatikoak nola erabili azalduko baitigu. Halaber, sare sozialen eta webgunearen kudeaketa egingo du.

Amaiur, aldiz, ekonomian aditua denez eta horri buruz ezagutza asko dituen, alor administratiboan oso lagungarria izango da. Berak eramango ditu finantzak eta gai administratiboekin zerikusia duen guztia.

Azkenik, Aitziber gai eta ekimen sozialen berri duenez, gai horretan ezagutza eskaini dezake, eta horrekin lotuta dagoen guztia kudeatuko du. Halaber, sare sozialen eta webgunearen kudeaketa egingo du, eta arduratuko da ekintza guztien berri emateaz webgunean eta sare sozialetan.

Giza baliabideak

Guretzat gure langileak oso garrantzitsuak dira.


Hasteko, kirol begirale bat daukagu, kirol klaseak eskaintzeko. Goi mailako eta kalitate ezinhobeko klaseak eskainiko ditu, guztiz prestatuta baitago zerbitzu hori eskaintzeko.

Erizain bat izango dugu, etxez etxeko zerbitzuetan beharrezkoa den atentzioa eskaintzeko. Izan ere, honek ez du ordezkutzen medikura joateak. Erizain honek eskaintzen duen zerbitzua gauza puntualetarako da.

Azkenik, gure gizarte langilea oso garrantzitsua da guretzat. Hark lagunduko digu gure programak prestatzen eta gure bezeroekin erlazio

zuzena eukiko du. Beharrezko ikasketak dituen norbait izango da, eta hirugarren adineko pertsonekin lan egiteko guztiz prestatua.

Bestalde, bolondresak gure elkartearen bihotza dira, guretzat ezinbestekoak. Uste dugu agureak jende gaztearekin egonda askoz ere biziago sentituko direla, eta adin ezberdintasun hori oso onuragarria izanga da. Gainera, bolondresak arduratuko dira paseoetaz, ekintzetara joateaz eta etxez etxeko zerbitzuetaz. Jende konprometitua da arazo sozialekin, eta oso onuragarria izango da haientzat, sozialki laguntzeak asko laguntzen baitu garapen pertsonalean.



Finantza baliabideak

Argi dagoenez, gure proiektua martxan jartzeko beharrezkoak ditu finantza baliabide batzuk.

Kasu honetan, ekimen sozial bat denez eta gizartearen ongizatea hobetzeari laguntzen duenez, Eusko Jurlaritzak eta Gasteizko Udaletxeak subentzioa eskainiko digu. Eusko Jurlaritzak 40000 euroko laguntza emango digu, eta Gasteizko Udaletxeak 15000 eurokoa. Halaber, gure bezeroek kuota txiki bat ordainduko dute urtean (50 euro), eta kirol jardueretan apuntatzeko, 10 euro hilabetean.

Betselako diru bilketak ere eingo ditugu: donazioak, zozketak...